ARETXABALETAKO HAURREN ARTEAN (5-12) EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA INDARTZERA BIDERATUTAKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- HELBURUA

Plegu honen helburua da Aretxabaletako haurren artean (5-12) Euskararen ezagutza eta erabilera indartzera bideratutako zerbitzua kontratatzea.

2.- HARTZAILEAK

Adierazitako zerbitzuaren hartzaileak 5-12 urte bitarteko (HH-LH) Aretxabaletako haurrak izango dira, eta parte hartzeko bete beharreko derrigorrezko baldintza izango da hizkuntza ikasteko edo hobetzeko beharra izatea (ikastetxeek eta zerbitzua emango duten arduradunek baloratuta), euskararen jabe ez izatea, eta hizkuntzaren aldetik errefortzua behar izatea.

Hartzaile bakoitzak zerbitzua gehienez 2 urtez jaso ahal izango du.

3.- ORDUTEGIAK

Agiri honetako lehen baldintzan ezarritakoaren arabera, esleipendunak zerbitzuaren ordutegi eta egutegiari buruzko proposamena egingo du.

Esleipendunak proposatutako ordutegia ezarriko du Udalak, edo bestela, zerbitzua erabiliko duten aretxabaletarrei bere ustez ondoen datorkien ordutegia.

4.- EGUTEGIA ETA LEKUA

Zerbitzua 5 eta 12 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta eta honako egutegia izango du:

- Urtarrilaren 1etik ekainaren 15era arte, biak barne eta irailaren 15etik abenduaren 31ra arte, astean bost egunez, eguneko ordu bete gutxienez talde bakoitzeko, parte hartzaileen adin eta euskara mailaren arabera. Astean behin Ludotekan parte hartuko dute hezitzaileekin batera. Horren helburua aisialdiaren jarraipena bermatzea izango da gune naturaletara.
- Egitasmoa, Euskara zerbitzuak eta egitasmoa gauzatzearen ardura izango duen elkarteak adostuko duten lekuan eramango da aurrera.
- Jarduera aurrera eramateko beharrezkoa den tresneria (aulkiak, mahaiak, armairuak, apalategiak) enpresa esleipendunak jarriko du.

5.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

5.1. BETEBEHAR OROKORRAK:

5.1.1. Helburuak:

Zerbitzuan antolatuko diren ekintza guztiak Udalak zehaztutako helburuen arabera bideratzea.

- **Helburu nagusia:**

– Euskararen jabe ez diren edo errefortzu berezia behar duten ikasleen hizkuntza ezagutza maila areagotzea, beren adineko haurren egunerokoari aurre egin ahal izateko eta erabileran eragitea, aisiaren bitartez, Aretxabaletako gizartean normaltasun osoz txerta daitezen, eta euskaraz bizi daitezen.

- **Helburu zehatzak:**

– Euskaraz ez dakiten haurrei, euskarazko aisia eskaintza osagarri eskaintzea, hizkuntza gaitasunak poliki-poliki barneratu ditzaten.
– Euskara egunerokoarekin lotzea, eremu formaletik eremu ez-formalera eramatea, eta berarekin gozatuz eta jolastuz gutxieneko trebetasunak lortzen joatea, euskal gizarteak eskaintzen dizkien beste eduki batzuk ere landuz: kultura, ohiturak...
– Gutxieneko hizkuntza gaitasunak lortzen doazen eran, udalerriak eskaintzen dizkien aisia eremu natural ezberdinetan txertatzen laguntzea.
– Hizkuntza gaitasunak eskuratzeaz gain, euskal kultura eta bereziki Aretxabaletako ohiturak ezagutzeko baliabideak ematea.

5.1.2. Nola:

Zerbitzua udalak finkatuta dituen helburuak lortzera bideratuko da.

Udal mailan, zerbitzuaren arduraduna euskara zerbitzua izango da.

Zerbitzuan, bi esparru bereizten dira: alde batetik haurrekin garatu beharreko zuzeneko lanak (urteko programazioa, hizkuntza edukien planifikazioa, hizkuntzaren erabileraren neurketak, eskolekin harremanak, gurasoekin harremanak...) eta beste aldetik barne lanak izango direnak. (planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, formazioa…).

5.1.3. Barne lana:

- **Planifikazioa:**

Zerbitzu honen kudeaketan jarduera guztiak planifikatu behar dira, ebaluazioaren ondorio eta proposamenak kontuan hartuz. Hiru planifikazio mota landuko dira: hilerokoa, hiru hilabetekoa eta urtekoa. Planifikazio guzti hauek euskara zerbitzuarekin adostu beharko dira.

- **Ebaluazioa:**

Zerbitzua ebaluatzeko, momentu ezberdin hauek aurreikusten dira:

– Ebaluazio jarraitua: Hezitzaileen eta hezkuntzako eragileen artean egingo da. Asistentzia datuak, ekintzetan izandako parte hartzearen datuak jasoko dira (sexuen arabera berezita); haurren hizkuntza ezaugarriak aipatuko diren fitxak egingo dira, beraien hizkuntza erabilerak, bilakaera… Datu horiek hezitzaileen eta hezkuntzako eragileen artean aztertuko dira, hiru hilean behin antolatuko diren bileretan, eta beharra dagoen guztietan. Bertan parte hartuko dute, eskoletako HIPIek, ikasketa buruek eta hezitzaileek (beharra balego, tutoreekin ere bilduko dira).

- Hileroko ebaluazioa: Hilero koordinatzailea eta euskara teknikaria elkartuko dira, egitasmoaren jarraipena egiteko. Egingo den lehen bileran, urteko planifikazioa zehazteaz gain, eskoletako arduradunekin izan beharreko lehen hartu-emana finkatu eta planifikatuko da. Ondorengo hileroko egutegia, ikastetxeen eta hezitzaileen artean finkatuko da.
- Hiru hilabetez behin, hezitzaile taldearen eta euskara zerbitzuaren artean: Ebaluazio bilera hauetan aurreko hiru hilabetekoaren balorazioa eta asistentzien jarraipena egingo da.
- Amaierako txostena: Amaieran txostena aurkeztu beharko da.
- Gainera udal arduradunaren, eskoletako zuzendarien, HIPIen eta zerbitzuaren esleipendunaren (koordinatzailea eta Hezitzaileak) artean bi bilera urtean: bata ikasturte hasieran proiektua aurkeztu, haurren datuak jaso, informazioa lortzeko. Bestea, ikasturte amaieran, urtearen balorazioa egiteko.

Edozein eratara, genero ikuspegia hartuko da kontuan, bai planifikatzerakoan, baita ebaluatzerakoan ere. Ebaluazio txostenean, genero berdintasunarekin zerikusia duen, egindako lana jasoko da.

- **Komunikazioaren eta harremanen kudeaketa**

- **Koordinazio lanak**

  - Hezitzaile taldearen barne koordinazioa: zerbitzuko hezitzaileek eta taldearen koordinatzaileak, astero barne koordinazioko bilera bat egingo dute.
  - Koordinazioa, zerbitzuaren esleipendunaren eta euskara Zerbitzuaren artean: Koordinatzailea eta Euskara zerbitzuaren arduraduna hiru hilean behin elkartuko dira, edo beharra dagoen guztietan.
  - Koordinazioa Euskara zerbitzuaren, eskoletako zuzendaritzako ordezkarien, HIPIen, koordinatzaile eta hezitzaileen artean: urtean birritan elkartuko dira. Lehenengoan proiektua aurkeztuko da, bigarrenean, proiektua ebaluatuko da.
  - Koordinazioa hezitzaileen eta HIPIen artean, haurren hizkuntzaren bilakaeraren berri izateko eta planifikatzeko. Hilero elkartuko dira.
  - Koordinazioa udalaz gaindikoa: Dagokionean, Mankomunitate mailako gainerako koordinatzaileekin eta hezitzaileekin elkartuko dira, informazioa elkar trukatzeko eta hala badagokio formazioa jasotzeko.
  - Herriko beste eragile batzuekin koordinazioa: haurrekin zerikusia duten eragile guztiekin koordinazio lanak egingo dira beharra dagoen guztietan, eta elkarren arteko lana planifikatuko da ezarritako helburuak lortzeko (ludoteka, dantza, gimnasia, kirolak, musika eskola....)

Haurrak hizkuntza gaitasunak hartzen doazen neurrian gizarteratzea da egitasmoaren helburua. Hori dela eta, astean behin, egitasmoak zehaztutako egunen eta orduen barruan ludotekara bideratuko dira, adin bereko haurrekin harremanetan jar daitezen eta gizarteratzen joan daitezen, bereziki erreparatuz momentu horietan beren hizkuntza erabilerari. Era berean, beren kabuz aukeratutako euskarazko beste aisia eskaintzetara bultzatuko ditugu, egitasmoaren gainetik, horretarako

ekintza horietako hezitzaileekin elkartuz, hizkuntza ibilbidean eragin dezaten.

Zerbitzuaren zabalkundeari dagokionez:

- Ikasturte amaieran eskoletako zuzendari/arduradunekin harremanetan jarri, zenbat haur aurreikusten diren jakiteko.
- Zerrenda osatu ondoren, tutoreak, haurraren familiekin, guraso zein tutoretza legala duten pertsonekin, harremanetan jarriko dira proiektuaren berri emateko eta koordinatzailearekin nahiz hezitzaileekin harremanak bideratuko dituzte.
- Familiak edo tutoretza legala duten pertsonak koordinatzailearekin eta hezitzaileekin, eta euskara eta gizarte zerbitzuetako langileekin elkartuko dira. Bilera horretan proiektuaren berri emango da, bere helburua zein den, non eramango den aurrera eta ordutegi eta egutegiaren berri emango zaie... Proiektuak beren seme-alaben hizkuntza eta gizarteratze bilakaeran duen garrantziaz hitz egingo zaie, parte-hartzearen garrantzia azpimarratuz.
- Ikastetxera haurrak iritsi ahala irakasleek proiektuaren koordinatzaileari informazioa pasa eta era berean gurasoekin egongo dira, eta aurreko puntuan adierazten den prozesuari hasiera eman.

Haurrak iritsi ahala hartuko dira, nahiz eta ikasturte amaieran iritsi, hurrengo urterako erreferentziak finkatzen hasteko.

Ikastetxeekin harremana etengabea izango da.

5.1.4. Funtzioak:

- **Hezitzaileen funtzioak:**

- Zerbitzuaren helburua lantzeko estrategiak martxan jartzea.
- Zerbitzuaren ebaluazioa, jarraipen eta diseinuaz arduratzen diren organoetan parte hartzea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu onaz arduratzea: ordutegia bete, garbitasuna eta txukuntasuna mantendu, erosi beharreko materialaren beharrak identifikatu, hainbat erregistro egunean mantendu, asistentziak, ekintzak…
- Koordinatzailearekin batera, zerbitzuaren eguneroko, hileroko eta urteko planifikazioa burutzea, zerbitzuaren antolakuntza eta funtzionamendurako.
- Erabiltzaileen behar eta eskaerei jarraipena egitea.
- Zerbitzuaren eguneroko aktibitatea ebaluatzea.
- Proiektua lantzeko dagoen materialaren berri izatea, hura erabiltzea, duten haurren adina eta hizkuntza maila kontuan izanik, hizkuntza edukiei dagokienez hurrenkera logikoa mantenduz.
- Astez-astez landuko diren edukiak koordinatzaileekin batera prestatzea.
- Familiekin, guraso zein tutoretza legala duten pertsonekin eta beste gizarte eragile batzuekin harremanetan jartzea, haurrei edo zerbitzuari loturiko gaietarako.
- Zerbitzuaren zabalkunderako estrategiak martxan jartzea.
- Ikasturte amaierako txostena prestatzea.

- **Koordinatzailearen funtzioak:**

  - Hezitzaileekin batera, zerbitzuaren eguneroko, hileroko eta urteko planifikazioa burutzea, zerbitzuaren antolakuntza eta funtzionamendurako.
  - Udaleko euskara zerbitzuarekin koordinatzea eta beharrezkoa balitz baita beste sail batzuekin ere.
  - Zerbitzuaren jarraipen eta ebaluazio txostenak entregatzea.
  - Proiektuari jarraipen zehatza egitea. Proiektua lantzeko dagoen materialaren berri izatea, hura erabiltzea, lantzea eta hezitzaileen eskura jartzea, duten haurren adina eta hizkuntza maila kontuan izanik, bakoitzari dagokion materiala eskura jarriz; hezitzaileek sor dezaketen materiala sailkatzea, hizkuntza edukiei dagokienez hurrenkera logikoa mantenduz, eta astez-astez landuko diren edukiak hezitzaileekin batera prestatu eta haien eskura jartzea. Gainera eskolekin koordinatuko da, bertan landuko diren gai eta edukiei dagokienean.
  - Asteroko balorazioak jasotzea, eta proiektuan zehar hezitzaileek izan ditzaketen edo gerta dakizkiekeen gora-beheren aurrean erantzutea.
  - Era berean bere lana izango da, eskolekin harremanetan jartzea, ikasturte hasieran, proiektuan parte hartuko duten haurren berri izan, haien gurasoekin egon, proiektua zer den eta zertan den adieraztea eta urtez urte haur horiek, duten hizkuntza mailaren eta adinaren arabera taldeetan sailkatzea.

5.1.5 Esleipen-hartzailearen ezaugarriak:

- Esleipen-hartzaileak hizkuntza errefortzuen egitasmoan haurrekin lan egingo duten pertsona guztiei eskatuko die, Sexu-gaizkileen Erregistro Zentraleko ziurtagiri negatibo bat aurkeztea; agiri hau ezinbestekoa izango da. Hala, sexu askatasunaren aurkako delitu batengatik epai irmo bidezko kondenarik ez dutela egiaztatuko da. Sexu askatasunaren aurkako delituak dira: sexu-erasoak eta sexu-abusuak, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbideratzea, pertsonak salerostea etab.

  Behin kontratua esleituta, kontratua betetzen duen langileetako bat aipatutako Erregistro Zentralean txertatzen bada, kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko zaio eta berehala pertsona hori beste langile batengatik ordezkatu beharko da.

5.2. BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK

- Langileak kontratatzea eta gizarte segurantzan alta ematea.
- Herriko eragile bat gehiago izatea.
- Hezitzaileen formazioaz arduratzea.
- Material guztian, generoaren eragina kontuan izatea.

6.- PERTSONAL BALIABIDEAK

- Zerbitzuaz arduratuko diren langileek honako baldintzak bete beharko dituzte:
  - Antzeko lanetan eskarmentua izatea.

- 18 urte beteak izatea.
- Gradu bat izatea edo gradu bat ikasten aritzea (maisutza, pedagogia, psikologia, soziologia, arte ederrak,…); edo lanbide heziketako gizarte zientziekin zerikusia duen goi mailako zikloa izatea (gizarte integrazioa, TAFYD, kultur dinamizatzailea….)
- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko euskara maila egiaztatzea.

7.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK.

7.1. ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEEN EUSKARA-GAITASUNA:

Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute zerbitzuaz arduratuko diren langile guztiek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Hori egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Dagokion ziurtagiria, titulua edo diploma aurkeztea, egoki den erakunde publiko edo zentro ofizialean egin eta emandakoa, edo
- Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

7.2. HIZKUNTZA PAISAIA:

Zerbitzua emango den lekuan, hizkuntza paisaia osatzen duten kartel, ohar eta gainerakoak euskaraz egongo dira

7.3. HIZKUNTZEN ERABILERA ZERBITZU HARTZAILEEKIN ETA HERRITARREKIN:

haurrekiko harreman oro euskaraz izango da, bai ahoz bai idatziz. Guraso eta gainerako herritarrekiko harremanak ere euskaraz izango dira, beraiek bestelakorik eskatzen ez duten bitartean; idatzizko harremanetan, eurek aukeratutako hizkuntzaren arabera jokatuko da, euskaraz edo ele bietan, eta ele bietan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

7.4. ERABILERA UDALAREKIN:

Kontratu honen bidez Udalaren eta esleipendunaren artean sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

8.- BERDINTASUN BETEBEHARRAK

- Generoaren arabera hizkuntzaren erabilera ezberdina dela ikusita (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2023), sexu aldagaia eta

genero adierazleak sartu behar dira proiektuaren esparruan egiten den azterketa eta jarraipeneko lan guztian.

9.- ZERBITZUA ABIAN JARTZEA
Zerbitzua martxan jartzeko eguna 2026ko urtarrilaren 1a izango da.

10.- KONTRATUA BERRAZTERTU ETA ALDATZEA
Adjudikatu den zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu Udalak interes publikoko arrazoiak daudenean.

11.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA
Udalak ahalmena izango du zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatzeko eta esleipendunak bete beharrekoak betetzen dituen egiaztatzeko.